# eguraldia

Jon Albisu

## Gaurko iragarpena




### Itsasoa

Norabide aldakorreko haizea ibiliko da 2ko indarrarekin, eta itsaskirria eragingo du. Tarteka, 3ko ufadekin, itsaskiko guneak sorraraziko ditu. Arratsaldetik aitzina hego ukituko haizea nagusituko da. Mendebal ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak metro bete eta bi metro arteko olatuak altxatuko ditu.

**GAUR**

### Ildo beretik

Aroak ildo beretik segituko du. Goiz-goizetik lanbroa izango da kostaldean, eta behe lainoa barnealdeko haran eta ibarretan, eta mendialdean ere bai. Egunak aurrera egin ahala, urdinguneak ugaritu eta norabide aldakorreko haize ahula izanik, tenperaturak gora egingo du. Giro egonkorra eta eguraldi eguzkitsua, beraz. Arratsaldetik aitzina, hodei altuak agertuko dira mendi inguruetan, eta barnealdera hego ukituko haizea ailegatuko da.

**BIHAR**



Eguraldiak ez du aldatzeko itxurarik. Egunsentitik lanbroa eta behe lainoa agertuko dira, baina berehala eguzkia eta zeru urdina nagusituko dira. Arratsaldetik aurrera eta hego haizeak lagunduta, hodei ugariago izango da mendi inguruetan, baina inolako garrantzirik gabe.

**ETZI**



Beste egun batez eta hego-mendebaldeko haizea nagusi izanik, tenperaturak gora egingo du. Egoera atmosferiko handia eta egonkortasun atmosferiko handia eta eguzkia eta hodei altuak gailenduko dira Euskal Herri osoan. Arratsalderako, Iberiar penintsulatik iritsitako hodei gehiago izango ditugu, batez ere barnealdean.

## Tenperaturak

| EUSKAL HERRIA | ▽ | △ |
|---|---|---|
| Baiona | 13 | 23 |
| Bilbo | 12 | 24 |
| Donibane-Garazi | 13 | 22 |
| Donostia | 14 | 24 |
| Gasteiz | 12 | 23 |
| Iruñea | 14 | 25 |
| Maule | 11 | 22 |

| EUROPA | ▽ | △ |
|---|---|---|
| Amsterdam | 9 | 16 |
| Atenas | 14 | 24 |
| Berlin | 10 | 14 |
| Bratislava | 8 | 16 |
| Brusela | 9 | 17 |
| Budapest | 11 | 14 |
| Dublin | 12 | 20 |
| Erroma | 15 | 24 |
| Frankfurt | 3 | 14 |
| Geneva | 9 | 17 |
| Helsinki | 11 | 14 |
| Kopenhage | 4 | 8 |
| Lisboa | 11 | 20 |
| Londres | 12 | 17 |
| Madril | 6 | 15 |
| Mosku | -3 | 1 |
| Oslo | -1 | 3 |
| Paris | 11 | 16 |
| Praga | 8 | 12 |
| Stockholm | -1 | 3 |
| Varsovia | 6 | 12 |
| Viena | 11 | 17 |
| Zurich | 10 | 17 |

| MUNDUA | ▽ | △ |
|---|---|---|
| Beirut | 11 | 16 |
| Buenos Aires | 12 | 23 |
| Bogota | 8 | 15 |
| Caracas | 16 | 24 |
| Chicago | 11 | 15 |
| Habana | 21 | 31 |
| Kairo | 19 | 26 |
| La Paz | 8 | 21 |
| Los Angeles | 14 | 23 |
| Manila | 21 | 29 |
| Miami | 22 | 32 |
| Mexiko | 8 | 25 |
| New Delhi | 13 | 19 |
| New York | 15 | 21 |
| Pekin | 10 | 21 |
| Rabat | 18 | 25 |
| Rio de Janeiro | 17 | 23 |
| Tokio | 15 | 25 |
| Santo Domingo | 21 | 31 |
| Santiago | 10 | 27 |
| Sao Paulo | 15 | 21 |
| Washington | 12 | 22 |

### Eguzkia

Sortu 08:35
Gorde 19:19

### Ilargia

| ILBETE | ILBEHERA | ILBERRI | ILGORA |
|---|---|---|---|
| Azaroak 1 | Azaroak 8 | Azaroak 15 | Azaroak 22 |

### Itsasaldiak

| | ITSASGORA | | ITSASBEHERA |
|---|---|---|---|
| Ordua | 11:55 / - | Ordua | 05:23 / 18:22 |
| Metroak | 2,90 / - | Metroak | 1,91 / 1,79 |




### Isobara mapa

Isobara mapak gaur arratsaldeko 14:00etarako eremu antiziklonikoaren sendotzea azaleratzen du. Arratsalderako hego haizea gailenduko da Euskal Herrian. Presio altuek harresiarena egin eta, hortaz, fronterik ez da izango Kantauri itsasoan. Britainia Handiko uharteetan eta Eskandinavian, aldiz, Islandian bezala, fronte kateak ugari, egongaiztasuna nagusi eta haizea oso indartsu ibiliko da.



### Europa gaur

Europako egoera atmosferikoak berriro ere, giro nahasi eta aldakorra erakusten ditu ezaugarri nagusi bezala. Hala ere, eguzkia eta zeru urdina gehien agertzen den eremu geografikoa Iberiar penintsula eta Mediterraneoko mendebaldea dugu. Gainerako lekuetan, hodeiak eta ostarteak, zaparradak eta leku anitzetan, aire masa hotzaren gailentzea bermatuko da.

# denbora-pasa

LUMA

## Hitz gezidunak




## Kate hitzak




| 7 letra | 6 letra | 5 letra |
|---|---|---|
| Apirila | Gesala | Alaba |
| ~~Drenaje~~ | Mirari | Amama |
| Ikaratu | Urinak | Arazi |
| Iragana | Zerria | Autoa |
| Irentsi | | Dadoa |
| ~~Iridioa~~ | **3 letra** | Ihesi |
| Otsaila | Ala | Irule |
| Solairu | Dut | Lauki |
| Ukabila | Lau | Sartu |
| Zalduna | Oka | Seiko |
| | | Txori |
| | | Uhina |

### AURREKO SOLUZIOAK

1. Polinesia. 2. Kokoak. 3. Aristotele. 4. Gorde. 5. Hiru. 6. Rugbya. 7. Valentzia. 8. Lau. 9. Ace. 10. Ibaian.



E4325